

- **Produkziozkoak:**

Diseinuari dagokionez eta kontuan izanik Pikler sehaskak izango direla, eta hauen diseinuak garrantzia handia duela, gure enpresak horien diseinua berrituko du. Hori horrela izanik, gure enpresak, Pikler produktuari kamara, motorra eta urrutiko agintea gehituko dio.

Ekoizpena eta instalazio aldetik, gure enpresa izango da Pikler sehaska horiei motorra eta kamara jartzeaz arduratuko dena.

- **Arazoa konpontzea**

Gure enpresako zerbitzuak arduratuko dira produktuaren konponketaz eta mantenuaz. Horretarako, pertsona espezializatu batzuk egongo dira gure enpresan arazo horiek aurrera eramango dituztenak.

- **Plataforma/sareko jarduerak**

Gure plataformak erabiliko ditugu, gure produktua ezagutarazteko; hala nola, sare sozial ezberdinetako kontuak sortuz eta gure web orria aurrera eramanez.